# eguraldia

Jon Albisu

## Gaurko iragarpena




### Itsasoa

Kantauriko lehen 20 milietan, norabide aldakorreko haizea etorriko da 2ko indarrarekin eta itsaskirria eragingo du. Aldika eta bereziki ipar-partean, 3ko ufadekin, itsaskiko guneak sorraraziko ditu. Ikusmena nahiko ona izango da.

**GAUR**

### Hodeiak eta ostarteak

Eguraldiak egonkortze aldera nabarmen egingo du. Egunsentiaz geroztik lanbroa izango da kostaldean, eta behe lainoa, berriz, barnealdeko ibarretan eta mendialdean. Orduek aurrera egin ahala, ostarteak ugarituz joango dira hego haizeak lagunduta, baina arratsalderako norabide aldakorreko haizea nagusituko da. Hodeiak eta ostarteak izango ditugu Euskal Herri guztian, eta tenperaturak gora egingo du.

**BIHAR**



Presio altuak jaun eta jabe dira, baina ipar ukitukoa gailenduko da gure lurraldean. Ondorioz, Bizkaiko Golkoan izango den fronte kate hotz baten aurreko hodei trinkoak Kantauri itsasora ailegatuko dira, eta, hortaz, ipar-partean eta mendialdean, ostarteak ikusteko aukera izango da.

**ETZI**



Bizkaiko Golkoan den antizikloi indartsuak ipar-ekialdeko haizea bidaliko du Kantauri itsasora. Zeru hodeitsua eta zaparrada tartekatuak izango dira ipar-partean eta mendialdean. Barnealdean, berriz, hodeiak eta ostarteak agertuko dira. Ipar ipar-ekialdeko haizea ibilikoda.

## Tenperaturak

| EUSKAL HERRIA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Baiona | 17 | 21 |
| Bilbo | 15 | 19 |
| Donibane Garazi | 14 | 19 |
| Donostia | 16 | 20 |
| Gasteiz | 15 | 18 |
| Iruñea | 13 | 22 |
| Maule | 14 | 21 |

| EUROPA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Amsterdam | 9 | 17 |
| Atenas | 14 | 24 |
| Berlin | 9 | 20 |
| Bratislava | 4 | 17 |
| Brusela | 7 | 20 |
| Erroma | 8 | 20 |
| Geneva | 4 | 19 |
| Kopenhage | 11 | 18 |
| Lisboa | 19 | 24 |
| Londres | 11 | 22 |
| Madril | 13 | 24 |
| Mosku | 6 | 10 |
| Oslo | 9 | 16 |
| Paris | 8 | 23 |
| Praga | 3 | 17 |
| Stockholm | 6 | 16 |
| Varsovia | 6 | 14 |
| Viena | 4 | 17 |
| Zurich | 5 | 18 |

| MUNDUA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Buenos Aires | 14 | 25 |
| Bogota | 5 | 20 |
| Caracas | 18 | 29 |
| Habana | 20 | 31 |
| Johanesburg | 10 | 26 |
| Kairo | 23 | 33 |
| La Paz | 5 | 20 |
| Los Angeles | 14 | 21 |
| Managua | 24 | 33 |
| Manila | 23 | 32 |
| Miami | 26 | 32 |
| Mexiko | 12 | 22 |
| Montevideo | 12 | 21 |
| New York | 20 | 21 |
| Pekin | 14 | 20 |
| Rabat | 19 | 24 |
| Rio de Janeiro | 22 | 30 |
| Tegucigalpa | 17 | 28 |
| Tokio | 18 | 20 |
| Santo Domingo | 23 | 31 |
| Santiago | 5 | 20 |
| Sao Paulo | 19 | 26 |
| Washington | 19 | 28 |

### Eguzkia

Sortu 08:12
Gorde 19:56

### Ilargia

ILBETE Urriak 21
ILBEHERA Irailak 29
ILBERRI Urriak 6
ILGORA Urriak 13

### Itsasaldiak

ITSASGORA
Ordua 01:43 / 14:26
Metroak 3,06 / 3,27

ITSASBEHERA
Ordua 07:44 / 20:42
Metroak 1,56 / 1,18



### Isobara mapa

Isobara mapak gaur arratsaldeko 14:00etarako erakusten duen moduan, Azoreetako antizikloiak, batetik, eta Mediterraneoko presio altuko guneak, bestetik, eremu antizikloniko zabala osatzen dute. Fronterik ez da Kantauri itsasoan, eta haizea hegotik iritsiko da arratsalderako norabide aldakorrekoa izateko. Kontinenteko goi latitudeetan, berriz, hainbat fronte katek, haize indartsuak eta aire masa hotzaren nagusitasunak egongaiztasun atmosferikoa jaun eta jabe izatera behartzen dute.



### Europa gaur

Europako egoera atmosferikoa beste egun batez giro nahasi eta aldakorraren isla dugu eremu geografiko anitzetan. Hortaz, Britainia Handiko irletan, Islandian, Eskandinavian eta Baltikoko herrialdeetan zeru hodeitsua, zaparradak, euria eta tenperatura hotzenak dituzte. Iberiako Penintsulan, Mediterraneoan eta kontinenteko erdialdean, urdinguneak, hodeiak eta ostarteak eta, jakina, tenperatura epelenak gailentzen dira, azken orduetan ekaitzaren aukera izan arren.

# denbora-pasa

LUMA

## Zopa test

Aurki itzazu zopa-taulako letren artean ondoren jarritako galderen erantzun egokiak. Erantzunak ezker-eskuin, goitik-behera eta diagonalean azalduko zazkizu

1. Zer esan nahi du "Geo" aurrizkiak?
   Zerua — Lurra — Landarea
2. Zeini deitzen zaio Kontinente Zaharra?
   Asia — Afrika — Europa
3. Zein organotan dago kornea?
   Belarrian — Begian — Sabelean
4. Usoak joan, sareak ................
   Heda — Bildu — Igo
5. Nola deitzen zaio sei angeluko poligonoari?
   Seikia — Dekagonoa — Hexagonoa
6. Korintoko kanalean nabigatzen bazabiltza, zein lurraldetan zaude?
   Grezia — Italia — Errumania
7.- Nola deitzen zaio egiptoarren eta beste herri batzuen idazkerari?
   Alfabetoa — Hieroglifikoa — Sanskritoa
8.- Europako zein estatutan ibil gaitezke Oihan Beltzean?
   Frantzia — Polonia — Alemania
9.- Nola zuen izena Tarzanen tximuak?
   Txími — Txita — Tximu
10.- Zein hemisferiotan daude Kanariak
   Iparrean — Hegoaldean — Erdian

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | E | G | I | A | N | I | H | H | E |
| U | L | N | P | X | E | N | E | R | B |
| O | H | U | A | D | T | D | X | E | N |
| D | A | E | R | R | A | P | A | Z | I |
| S | O | L | R | R | E | B | G | O | N |
| A | K | N | E | S | A | I | O | S | E |
| P | I | O | A | T | O | X | N | A | M |
| S | F | H | N | E | L | K | O | H | P |
| X | I | E | U | R | O | P | A | O | D |
| S | L | I | S | O | X | T | A | E | S |
| N | G | Z | A | S | A | T | A | N | U |
| F | O | O | L | A | I | Z | E | R | G |
| A | R | E | S | X | H | E | X | E | L |
| R | E | H | T | R | I | S | R | K | O |
| N | I | T | X | O | H | Z | S | O | N |
| T | H | A | I | N | A | M | E | L | A |

**Atsotitza**
*Mendebala euritan,*
*berrogeita zortzi ordu bustitan.*

E4002

### AURREKO SOLUZIOAK

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | • | S | • | G | • |
| | | | B | O | Z | A | K |
| | | | • | L | A | I | A |
| • | M | • | G | A | I | T | Z |
| N | A | H | A | S | T | U | A |
| • | H | A | R | A | • | K | K |
| S | A | R | A | • | B | • | H |
| • | I | T | U | N | A | K | • |
| N | A | Z | A | • | I | A | Z |
| • | K | A | K | A | T | I | A |

1. Arkakuso. 2. Emaitzak. 3. Gorostia. 4. Lekeitio. 5. Otalorea. 6. Pertsona. 7. Anorakak. 8. Zakatzak. 9. Makarrak. 10. Bizkorra. 11. Goiztiar. 12. Asuncion.

